



Fagus Alkiza

Hernio-Gazume Interpretazio Zentroa
Centro de Interpretación de Hernio-Gazume

FAGUS ALKIZA, INGURUMEN HEZKUNTZARAKO ERAKUSLEIHOA

Fagus Alkiza Interpretazio Zentroa Hernio-Gazume Kontserbazio Bereziko Eremua ezagutzeko erakusleihoa da, bertara sartzeko ate nagusia hain zuzen ere. **Hernio-Gazumeko** ondare naturala, bertako basoak, harkaiztiak eta larreak ezagutzeko aukera eskaintzen du Fagusek, bai Interpretazio Zentroan bertan eta baita **hur eta gaztetxoentzat egokitutako bisita gidatuan** ere. Gainera, Fagusek, **Lehen Hezkuntako** zein **Bigarren Hezkuntzako ikasleentzat** egokitutako **material didaktikoa** ere prestatu du.

Fagus Alkiza Interpretazio Zentroak hiru ardatz ditu: **natura**, bertan jarduten duen **gizakia** eta bi horien arteko harremanetatik sortzen den **kultura**.

Naturaren ardatzetik abiatuta, **Fagus Alkizaren** helburua, biodibertsitatea kontserbatzea eta areagotzea da. Horretarako, interpretazio zentroan Hernio-Gazume KBeko biodibertsitateari buruzko informazioa aurkituko duzue; baita mendigunean egin diren eta egiten ari diren kontserbaziorako lanak ere. Bestalde, zentroan erakusgai egongo dira bertako basoaren erreplika, kobazulo baten erreplika saguzar espezie ezberdinekin e.a. Gainera, ikasleek **tabletak** ere eskura izango dituzte informazioa modu erraz eta entretegarrian jasotzeko.

Gizakiaren ardatzari dagokionez, **Fagus Alkizaren** helburua, garapen iraunkorra lortzea da. Honela, biodibertsitatea kontserbatzea bermatzen da; izan ere, baserritarrei esker baitaude Hernio-Gazume KBEan hain garrantzitsuak diren larreak, pago motzak... Horrexegatik, egun baserriak pairatzen duen egoera kontuan izanik, Fagus Alkiza ere hausnarketa-gune eta aukerak bilatzeko abiapuntua da.

Bestalde, interpretazio zentro honetan, alkizarrek beren historian zehar ingurunearekin izandako harremana ezagutarazi nahi da. Horretarako, bilduriko ondasun kulturalak bertan ikusgai egongo dira: txondorra, karobiak...

Kulturarena azken ardatza izanik, kontuan hartu beharrekoa da, garaiak aldatzen doazela eta horrekin batera ohiturak, ustiapen ereduak, ingurumenarekiko harremanak, kontsumoa... Beraz, kultura aldaketaz hitz egiten arituko ginateke. Hori dela eta, zentroaren helburua landa eremuan kultura era integralean sustatzea ere bada.

Interpretazio Zentrora egindako bisita osatzeko, Hernio-Gazumeko barrutian eta Alkizatik abiatuta, **seinaleztatuta dagoen ibilaldia prestatu dugu haur eta gaztetxoentzat**. Ibilbide honetan, ingurune zoragarriaz gozatzeaz gainera, bertako ondare kulturala ezagutzeko modua ere izango dute ikasleek.

Fagus Alkiza interpretazio zentroak **bi unitate didaktiko garatu ditu**, Lehen Hezkuntzako etapari zuzendutakoa bata eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako besteak. Biak egokitu egiten dira ikasleen adinetara eta curriculumetan erabat txertatuta daude. Programako gida bat dago eta baita ikasle zein irasleentzako materialak ere, fitxen formatuan.

IKASLEENTZAKO BISITAK

Fagus Alkiza Interpretazio Zentroak ikastetxeentzako bi kanpaina egingo ditugu:

1- Udaberrikoa: martxoa-ekaina

2- Udazkenekoa: iraila-urria

Bisitak aldeztetik erreserbatu beharko dira eta astean behin egingo dira. Eguna eta ordua erreseba egiterakoan adostuko dira, posible bada, eguna eta ordutegia ikastetxeen beharretara egokituko dira.

➤ **Erreserbak egiteko**

Gutxienez astebete lehenago egin beharko da erreserba.

Ikasleen gehienezko kopurua: 30 (gutxienez irakasle bat ere izan beharko da taldean)

Telefonoa: 688 604 466

Maila: kultura@alkiza.eus

➤ **Tarifak**

Haur bakoitzeko 3€ kobratuko da.

Ikasmateriala prezio horren barruan dago.

Oharra: *Bisita ordu eta erdi ingurukoa izango denez, oinetako eta arropa erosoak janztea aholkatzen dizuegu.*



BIODIBERTSITATEA, BIZITZAREN ETORKIZUNA